

## Europar Batasunaren energia politika, garapen jasangarria lortzeko tresna

The energy policy of the European Union: a tool for the achievement of sustainable development

Asier García Lupiola

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.114.2019.10>

**LABURPENA:** Europar Batasunaren oinarritzko arategiaren arabera, garapen jasangarria Europako integrazio prozesuaren oinarritzko helburuetako bat da. Helburu hori betetzeko, Europa mailan ingurumen politikaren garapena ezin bestekoa izan da, baita energiak bertan duen presentzia gero eta handiagoa ere. Energiak pixkanaka gero eta garrantzi gehiago hartu du, ingurumenaren eta energiaren artean harreman estu iraunkorra finkatu delarik aipatutako helburura heltzen saiatzen diren askotariko estrategia, proposamen eta planetan. Hasiara batean ingurumen eta energia politikarik ez ziren. Ordea, gaur egun Europako Jatorrizko Zuzenbideak energi politika ingurumenaren babeserako bitarteko eraginkor gisa jasotzen du eta horrela ikus daiteke Jatorrizko Zuzenbide hori garatzen duten estrategia eta planetan, baita hartutako arauetan ere.

**HITZ GAKOAK:** Europar Batasuna. Garapen jasangarria. Energia politika. Ingu-rumen politika.

**ABSTRACT:** Sustainable development is one of the objectives of the European integration process and this is reflected in the EU's fundamental regulations. To achieve this, the implementation of the European environmental policy has been essential, as well as the increasing presence of energy in it. Energy has gradually acquired greater importance, establishing a constant relationship between environment and energy in the different plans and strategies that seek to achieve the objective of sustainable development. At the beginning there was no environmental or energy policy, however today the European Law includes the use of energy policy as an effective tool for environmental protection. This is clearly reflected in the plans and strategies that develop it as well as in the legislative acts adopted.

**KEYWORDS:** European Union. Sustainable development. Energy policy. Envi-ronmental policy.

**RESUMEN:** El desarrollo sostenible constituye uno de los objetivos del proce-so de integración europea, tal y como expresa la normativa fundamental de la UE. Para el logro del mismo, la puesta en marcha de la política medioambiental

europaea ha sido fundamental, así como la cada vez mayor presencia de la energía en la misma. Precisamente, la energía ha ido adquiriendo progresivamente mayor importancia, estableciéndose una relación constante entre medio ambiente y energía en los diferentes planes y estrategias que tratan de alcanzar el objetivo citado. De una situación inicial de inexistencia de política medioambiental ni energética, se ha pasado a la situación actual en la que el propio Derecho Primario europeo recoge el recurso a la política energética como herramienta eficaz de protección medioambiental, lo que se refleja en los planes y estrategias que lo desarrollan así como en los actos legislativos adoptados.

**PALABRAS CLAVE:** Unión Europea. Desarrollo sostenible. Política energética. Política medioambiental.

Trabajo recibido el 5 de mayo de 2019

Aceptado por el Consejo de Redacción el 31 de mayo de 2019

# Europar Batasunaren energia politika, garapen jasangarria lortzeko tresna

The energy policy of the European Union: a tool for the achievement of sustainable development

Asier García Lupiola

**Aurkibidea:** I. Sarrera.—II. Europar energia politikaren aurrekariak eta oinarriak. 1. Europar energia politikaren eraketa eta ingurumenaren babesarekin duen lotura gero eta handiagoa. 2. Ingurumen eta energia gaietako oinarriak.—III. Garapen jasangarriaren aldeko Europako energia politikaren egungo tresnak. 1. 2030erako klima eta energia esparrua. 2. Energia Batasuna. 3. Energia Garbirako lege sorta.—IV. Ondorioak

## I. Sarrera

Ingurumenaren babesa gizartearen egungo kezka handienetako bat da, areago klima aldaketaren ondorioek duten garrantzia ikusita. Gainera, ingurumenaren defentsa eta ekonomiaren hazkundera uztartzeko premiak garapen jasangarria egin dute nazioarteko apustu sendoenetako bat. Europar Batasunean (EB) indarrean den araudiak zehazten duenez, integrazio prozesuaren oinarritzko helburuetako bat, hain zuzen, garapen jasangarria da, EBko Tratatuko (EBT) 3. artikuluan adierazten den bezala.

Europako Erkidegoak eratu zituzten Tratatuek ez zuten printzipio hori ezarri, nahiz eta izandako askotariko erreformei esker, printzipioak EBko oinarritzko testu juridikoetan bilduta amaitu duen (egun, EBTz aparte, EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatua: EBFT). Era horretan, garapen jasangarria Europaren Sorrerako Zuzenbidean zehaztuta geratu zen, estatu kide guztientzako helburu lotesle bihurtua. Helburu hori betetzeko, europar ingurumen politikaren garapena ezin bestekoa izan da, baita energiak bertan duen presentzia gero eta handiagoa ere. Energia politika ez zen politika gisa sorrerako tratatuetan adierazi, eta haren garapena baztertuta

geratu zen, herrialdeek gai hori estrategikotzat eta interes nazionalekotzat jotzen baitzuten. Politika gisa zehaztuta geratzeko bultzada bertan bildutako ingurumen alderdiek eman dute, baita jasangarritasuna lortzera bidean elementu garrantzitsutzat hartzen joan izan delako ere.

Testu honetan aldi berean atzera begiko eta argitzaile den azterketa egiten da. Hain zuzen aztertzen da energiak EBn garapen jasangarria lortzeko tresna bihurtzeko orduan pixkanaka hartu duen garrantzia, aipatutako helburura heltzen saiatzen diren askotariko estrategia, proposamen eta planetan, baita horiek garatzen dituen araudian ere, ingurumenaren eta energiaren arteko harreman etengabe bat ezarri. Adieraziko denez, ingurumen edo energia politikarik ez zegoen hasierako egoeratik, etapa desberdinetan barrena pasa gara, harik eta energiak ingurumena babesteko eta klima aldaketaren kontra egiteko ezin besteko garrantzia hartu duen arte. Hori Lisboako Tratatuan eta egun indarrean diren Europako Ingurumen Zuzenbideko helburu eta printzipiotan biltzen diren gainerako elementu juridikoak aztertzerakoan baieztatuko da. Are gehiago, ikusiko denez araupetzeko bitarteko berriek bi gaien arteko lotura sendotzen dute, energia berriztagarriak eta energia efizientzia sustatuz.

## II. Europar energia politikaren aurrekariak eta oinarriak

### 1. Europar energia politikaren eraketa eta ingurumenaren babesarekin duen lotura gero eta handiagoa

Europako Erkidegoak eratzeko tratatuak baino lehen onartua, 1950eko Schuman Adierazpenak ikatza eta altzairua ekoizteko bateratze lana bultzatu zuen, Europaren ekonomia garapena bermatzeari begira(1). Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa sortzen zuen 1957ko Parisko Itunaren ondoren, 1957ko Erromako Itunek, Europako Ekonomia Erkidegoa ez ezik, Europako Energia Atomikorako Erkidegoa jarri zuten abian eta, era horretan, berretsi egin zen energiak Europako integrazio prozesuan bide zuen garrantzia(2). Hala ere, hasieran ikatz eta energia nuklearrarekin salbu, Europaren energiaren arloko integrazioa ez da izan lehentasuna estatu kideentzat duela gutxi arte. Horren arrazoia da energia segurtasuna oinarritzeko estrategia faktoretzat hartzen dela herrialde guztietan, estatu bakoitzeko erakunde politikoen kontrolpean eduki beharrekoak; ikuspegi horretan kokatuta

(1) Garai hartan, ikatzak Europako energiaren % 90 hornitzen zuenez, argi zegoen energiaren gaia eta oparotasunarekin zuen lotura oso presente zeudela Europako lider politikoen hasierako kezketan. MORÁN BLANCO, Sagrario, *Seguridad Energética y Medio Ambiente. Dos caras de una misma moneda. Especial referencia a la Unión Europea*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur (Nafarroa), 2015, 132 orr.

(2) RISTORI, Dominique, «60 ans de politique énergétique», *Revue du droit de l'Union européenne*, 1 zenbakia, 2019, 19 orr.

ulertu behar dira energia segurtasunaren gaietan nazioez gaineko erakundeei subiranotasuna lagatzeko jarritako eragozpenak(3).

Beraz, EBren energia politikak hainbat etapa pasa ditu egungo egoerara heldu arte; egun, politika horrek eta ingurumenaren babesak zuzeneko harremana dute. Estatu kideen arteko energia lankidetzak bat egituratzeko hasierako pausoak aipatutako hiru tratatuak indarrean sartu ondoren eman ziren, arlo horretan merkatu unitate baterako lehendabiziko proposamenak eginez. Europako etorkizuneko energia politikarako ezarritako helburuen artean ondorengoak aipatzen ziren: hornidura merkea, horniduraren segurtasuna, ordezkotuen produktuen garapena eta horniduraren egonkortasuna(4). Argi eta garbi ikus daitekeenez, jasangarritasunaren ideia ez zen kontuan hartzen.

1973ko petrolioaren krisiaren ondorioen eraginez, gai horri buruzko politika bateratu bat sustatzearen aldeko hautua egin zen. Egoeraren larria Europaren ahuldadean islatu zen, kanpoko energiarekin zuen mendekotasunagatik eta herrialde kideen arteko elkartasun faltagatik; ondorioz, beharrezkoa zen lankidetzak sendotzea. Horrenbestez, Batzordeak aurkeztutako proposamenak hornidura segurtasunaren eta prezioen egonkortasunaren helburuan jarri zuen indarra; gainera, energia nuklearra sustatzearen aldeko apustua egin zuen(5). Europako Erkidegoetako herrialdeek bizi zituzten krisia eta energia ahuldadeak zirela eta, bazirudien energia politika bateratu bat jarri beharko zela abian. Aldiz, ez zen politika hori garatu, eragozpen gaindiezina aurkitu baitzuen: gobernuak energia arloaren gaineko kontrolari lotu zitzaizkion, energiari buruzko politikak dituzten eraguztietako eratorpenak direla eta(6).

Krisiaren bigarren oldarraren ondoren, energia arrazionalki erabiltzeko plan bat jarri zen abian, energia hornidura mantentzeko eta hura kostu nahiko merke egiteko, baldintza horiek ezin bestekoak baitziren Europako ekonomia gizarte ereduari eusteko(7). Artean, ikatz kontsumoan eta programa nuklearren bultzadan indarra jartzen zen arren, energia berriztagarrien aldeko apustua ere egin zen, lotsati samar bada ere, eta aholkua eman zen haien inguruko I+G gaiak lantzeko. Hori bai, nabar-

---

(3) ARANZADI, Claudio, «Energía y Geoestrategia: Introducción», *Cuadernos de Estrategia*, 166 zenbakia, 2014, 35 orr.

(4) EUROPAR BATZORDEA, 1968ko abenduaren 18ko komunikazioa, *First guidelines for a Community energy policy*, COM (68) 1040.

(5) EUROPAR BATZORDEA, 1974ko ekainaren 26ko komunikazioa, *Towards a new energy policy strategy for the European Community*, COM (74) 550 final/2.

(6) SODUPE, Kepa eta BENITO, Eduardo, «Los problemas energéticos en la Unión Europea a la luz del tratado sobre la Carta de la Energía», *Anuario español de derecho internacional*, 16 zenbakia, 2000, 422 orr.

(7) EUROPAR BATZORDEA, 1981eko urriaren 2ko komunikazioa, *The development of an energy strategy for the Community*, COM (81) 540.

mendu behar da energia berriztagarriak ez direla kontuan hartzen ingurumen arrazoiengatik, hornidura segurtasuna dela tarteko baizik, petrolioia ordezkatzeko (8).

Energia ez bezala, ingurumena arautua izan zen Europako Erkidegoetan (9). 1970eko hamarkadan Ingurumenari buruzko Ekintza Programak (EAP) abian jarri ziren arren, benetako bultzada Europako Agiri Bakunari (EAB) esker etorri zen, 1987ko uztailaren 1ean indarrean sartutakoa, Europako eremuan ingurumenarentzat politika independente bat ezarri zuena. Beraz, EAB mugarria izan zen Europako Erkidegoak ingurumena babesteko rolaren bilakaeran, araudi berezi bat eta subsidiariorotasun printzipioa sartu baitzituen gai horretan, gai hori beste batzuekin ere harremanetan jarriz, adibidez, merkataritza, nekazaritza, ikerketa edo energiarekin (10). EABk, beraz, asmatu egin zuen Europako Sorrerako Zuzenbidera EAPekin hasitako ildoan eramaten, alegia, ingurumen alderdiak Erkidegoko beste politika batzuetan sartzea (11).

Era horretan, 80ko urteen amaieran, aitortu egin zen energia efizientziak eta energia berriztagarrien erabilerak era garrantzitsuan lagundu zutela isuri kutsagarriak murrizten (12). Are, Batzordeak ondorioztatu zuen energia politiken gaineko erabakiek gogoan izan beharko lituzketela berotegi efektuak ekar zitzakeen klima aldaketak, eta energia berriztagarrien sustapena haiek eragozteko beharrezko neurria zela. Hala, Europako energia politika ingurumen arazoak modu orokor batez tratatzera pasa zen, aitortu baitzuen energia dela berotegi efektuko gasen (BEGen) isuri iturri handiena, eta onartu ere egin zuen arazo hori energia erabileraren baldintzatzaile nagusia izatera hel zitekeela (13).

(8) LÓPEZ SAKO, Masao Javier, «La política energética sostenible de la Unión Europea (1)», *Noticias de la Unión Europea*, 322 zenbakia, 2011, 85 orr.

(9) Hala ere, Tratatu eratzaileek ez zuten ingurumenari buruzko arauketarik aurrakusten. Hori dela eta, 1960ko hamarkadan Erkidegoetako erakundeak industria politikaren beharrak eta ingurumenaren babesa elkartzen ahalegindu ziren eta Europako Ekonomia Erkidegoaren Itunaren 94 artikulura jo zuten. Horrek, merkatu batuan eragina duten Estatu kideen politiken elkartzea ezartzen zuen. MODAFFERI, Caterina, «La política medioambiental europea. Estudio sobre el desarrollo de la protección ambiental y papel decisivo de la Unión Europea», *Cuadernos Cantabria Europa*, 15 zenbakia, 2016, 56 orr.

(10) GUSEV, Alexander S., «Climate Change Issues in a Transatlantic Context», *L'Europe en formation*, 360 zenbakia, 2011, 80 orr.

(11) Europako Agiri Bakunak zehaztutako bidea jarraituz, 1993ko azaroaren 1ean indarrean sartutako Maastrichteko Itunak eta 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartutako Amsterdameko Itunak europar ingurumenaren politikaren oinarriak zehaztu zituzten (Nizako Tratatuak ia ez zuten berritasunik ekarri arlo horretan), helburu zehatzak zabalduz eta Europako Parlamentua ingurumen araudi sorreraren partaide eginez.

(12) EUROPAR BATZORDEA, 1988ko maiatzaren 3ko komunikazioa, *The main findings of the Commission's Review of Member State's energy policies*, COM (88) 174 final.

(13) EUROPAR BATZORDEA, 1990eko otsailaren 8ko komunikazioa, *Energy and the environment*, COM (89) 369 final.

90eko urteen erdialdera, Europako energia politikaren ikuspegi askoz orekatsuago bat hartu zen, lehiakortasunarekin eta horniduraren segurtasunarekin batera ingurumenaren babesa kontuan hartu zuenean. Hain zuzen, Batzordeak aurkeztutako energiari buruzko Liburu Berdeak hiru arlo horiek ezartzen zituen Europako energia politikaren lehentasunezko helburuen artean(14). Testuak aitortu egiten zuen energia eta ingurumen gaiak ezin zirela zein bere aldetik aparte aztertu. Batzordearen iritziz, Europako energia estrategia bat ezarri behar zen, klima aldaketaren fenomenoak kontuan hartuko zuena, eta Europa osoan elektrizitatea sortzeko energia berriztagarriak sustatu, ingurumenarentzat onuragarria baitzen, bereziki berokuntza globalaren aurrean. Ekinbide berri hori garatuz, proposamen berriak heldu ziren energia berriztagarrien(15) eta klima aldaketaren energia arloaren inguruan(16), baita energiari buruzko lehen lege sorta. Bertan, elektrizitatearen eta gas naturalaren barne merkaturako araei buruzko Zuzentaraua nabarmendu zen(17), eta dagoeneko 2003an, bigarren sorta bat, hura garatzeko(18).

2006 arte itxaron behar dugu europar energia politika berriaren oinarriak ezartzeko. Hori Liburu Berde berri baten bitartez egin ahal izan zen, Batasunak zein arloren gainean jokatu behar zuen identifikatu zuena(19). Haien erdiak harreman estua zuen ingurumenarekin. Hala, segurtasuna eta lehiakortasuna erraztuko zituen energia konbinazio jasangarri, efiziente eta bariatuen lortzeko, energia iturri berriztagarrien alde apustu egin zen. Klima aldaketaren kontrako borroka ikuspegi integratu batera heltzeko, energia efizientzia eta energiaren erabilera arduratsu, ekonomiko eta arrazionalagoa bultzatu zen. Bukatzeko, energia gaietako berrikuntza sustatzeko, ikerketa sendotu eta areagotzearen aldeko apustua egin zen. Energia politika, era horretan, ingurumenari uztartu zitzaion, ja-

---

(14) EUROPAR BATZORDEA, *For a European Union Energy Policy – Green Paper*, COM (94) 659 final/2, 1994.

(15) EUROPAR BATZORDEA, *Energy for the Future: Renewable Sources of Energy – Green Paper*, COM (96) 576 final, 1996.

(16) EUROPAR BATZORDEA, 1997ko maiatzaren 14ko komunikazioa, *The Energy Dimension of Climate Change*, COM (97) 196 final.

(17) 1996ko abenduaren 19ko 96/92/CE Zuzentaraua, elektrizitatearen barne merkaturako arau arruntzei buruzkoa (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 027, 1997/1/30) eta 1998ko ekainaren 22ko 98/30/CE Zuzentaraua, gas naturalaren barne merkaturako arau komunei buruzkoa (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 204, 1998/7/21).

(18) (CE) 1228/2003 Erreklamendua, elektrizitatearen mugaz gaindiko merkataritzarako sarera sartzeko baldintzei buruzkoa; 2003/54/CE Zuzentaraua, elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzkoa eta 96/92/CE Zuzentaraua indargabetzen duena; 2003/55/CE Zuzentaraua, gas naturalaren barne merkaturako arau komunei buruzkoa eta 98/30/CE Zuzentaraua indargabetzen duena. Hirurak 2003ko ekainaren 26an onartuak (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 176, 2003/7/15).

(19) EUROPAR BATZORDEA, *Libro Verde: Estrategia europea para una energía sostenible, competitiva y segura*, COM (2006) 105 final, 2006.

sangarritasuna izatera pasa baitzen bere helburu handia, lehiakortasun eta horniduraren segurtasunarekin batera.

Liburu Berdeak Europako energia industriaren erronka nagusien artean, ingurumenari buruzko helburuekin bere jarduera bateragarri egiteaz gain, EBko energia inportazioen mendekotasun gero eta handiagoari aurre egiteko premia adierazi zuen, kontuan hartuz mundu osoko eskari gero eta handiagoa, erregai fosilen erreserba nagusiak herrialde gutxi bazuetan egotea, eta energiaren prezio altuak. Dokumentu horren eragina handia izan zen Europako ingurumenari buruzko legedian, zehazki klima aldaketaren kontra borrokatzeko eta energia berriztagarriak garatzeko hartutako erabakiei dagokienez. Ordutik, klima aldaketa eta energia berriztagarriari buruzko araudi egitura bat landu da, hainbeste non bi gaiak energia arloaren eta politika publikoen eguneroko errealitatean hertsiki txertatuta daudela dirudien (20).

Aipatutako Liburu Berdean oinarrituz, 2007 hasieran, EBk energia politika bat garatzeko estrategia aurkeztu zuen, ingurumen politikarekin zuzenean lotzen duten bi helburu jarraituz (21): alde batetik, kontsumo gutxiago, energia seguru, lehiakor eta jasangarriagoa duen ekonomiaren aldeko konpromiso irmoa; bestetik, politika horrek klima aldaketaren gaia lantzeko balio izateko asmoa. Proposamena energiaren giza ekoizpen eta kontsumoan ingurumen inplikazioak kontuan hartzearen emaitza zen eta, ondorioz, ez zegoen jada onartzerik haren jasangarritasuna bera ezin bestekotzat hartzen ez duen energia politika bat, beste alderdi batzuekin, adibidez, horniduraren segurtasunarekin eta lehiakortasunarekin, parez pare (22). Estrategia bereziki garrantzitsutzat hartzen da bere edukiatatik, energia segurtasunean, klima aldaketaren eta energia efizientziaren desfioak sartzan baititu (23). Laburbilduz, proposamenari esker, Europarako energia politika bat ezarri zen, energia efizientzia, energia berriztagarri eta bioerregaien erabilerrako oso asmo handikoak ziren helburu kuantifikatuak zehaztu baitzituen (24).

Data berean Europar Batzordeak aldaketa klimatikoaren aurkako Europako estrategia zehaztu zuen (25), ingurune eta energia gaiak behin be-

(20) ALENZA GARCÍA, José Francisco eta SARASIBAR IRIARTE, Miren, *Cambio climático y energías renovables*, Thomson-Civitas, Zizur Txikia (Nafarroa), 2007, 13 orr.

(21) EUROPAR BATZORDEA, 2007ko urtarrilaren 10eko komunikazioa, «Una política energética para Europa», COM (2007) 1 final.

(22) LÓPEZ SAKO, Masao Javier, *op. cit.*, 81 orr.

(23) HERRERO DE CASTRO, Rubén David, «La seguridad energética y la estrategia global de seguridad de la Unión Europea», *Revista UNISCI*, 42 zenbakia, 2016, 90 orr.

(24) RISTORI, Dominique, *op. cit.*, 31 orr.

(25) EUROPAR BATZORDEA, 2007ko urtarrilaren 10eko komunikazioa, *Limitar el calentamiento mundial a 2°C — Medidas necesarias hasta 2020 y después*, COM (2007) 2 final.



tiko lotuta agertuz, aldaketa klimatikoaren aurkako borroka dela medio. Bi proposamenak Europako Kontseiluak bere egin zituen(26) eta Lisboako Tratatuan egin zen erreforma definitu zuten. Klimari buruzko ekintza gaetan, EBk 1990etik 2020ra BEGen isuriak % 20 murriztea jarri zuen helburutzat, alde bakarrez(27). Energia arloan, 2020. urtean lortu beharreko ondorengo helburuak finkatu ziren: energia efizientzia handitzea, EBko energia kontsumoaren % 20 aurrezteko; EBko guztizko energia kontsumoan, energia berriztagarriak % 20 izatera heltzea; garraiorako gasolina eta gasolioaren guztizko erregai kontsumoan bioerregaiak duen zatia % 10era igotzea.

Egia da EBn ingurumena babesteko sortutako araudiek islatu egiten zutela jada klima aldaketaren kontrako borrokaren eta energiaren arteko harreman estua, batez ere energia berriztagarriak bultzatuz. Hain zuzen, 2008ko urtarrilean, Batzordeak klimaren babes eta energiari buruzko neurrien sorta global bat argitaratu zuen; Lisboako Tratatu indarrean sartutakoan, legegintza prozedura arruntaren bidez, emaitza, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ekintza garrantzitsuak onartzea izan zen. «Energia eta klimari buruzko lege sorta» deitutakoa ondorengo legegintza ekintzek osatzen zuten(28): 2009/28/CE Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzen duena; 2009/29/CE Zuzentaraua, BEG isuriaren eskubide salerosketa perfektionatzen duena; 2009/31/CE Zuzentaraua, karbono dioxidoaren biltegitarte geologikoari buruzkoa; 406/2009/CE Erabakia, estatu kideek 2020 arte EBk hartutako konpromisoak betetz BEG isuriak murrizteko egin behar duten ahaleginari buruzkoa. Pixka bat ondoren, lege sorta hori osatzeko, lehendik onartutako egintzak eguneratu egin ziren(29).

---

(26) 2007ko martxoaren 8 eta 9ko Bruselako Europar Kontseilua – Presidentetzaren Ondorioak, 7224-/1/07 REV1.

(27) Onartu zen herrialde garatuak konpromisoa hartu behar zutela, nazioarteko hitzarmen bidez, 2020 arte beren isuriak % 30 murrizteko, eta 2050 arte % 60tik 80ra. Hitzarmen hori sinatuz gero, EBk isuriak 2020 arte % 30 murriztea ezarri beharko luke.

(28) Arau guztiak 2009ko apirilaren 23an onartuak (*Europako Erkidegoko Aldizkari Ofiziala* L 140, 2009/6/5).

(29) 2009/72/CE Zuzentaraua, elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzkoa eta 2003-/54/CE Zuzentaraua indargabetzen duena; 2009/73/CE Zuzentaraua, gas naturalaren barne merkaturako arau komunei buruzkoa eta 2003/55/CE Zuzentaraua indargabetzen duena; 713/2009 Erreklamendua, Energia Arautzaileen Lankidetzaren Agentzia sortzen duena; 714/2009 Erreklamendua, elektrizitatearen mugaz gaindiko merkataritzarako sarera sartzeko baldintzei buruzkoa eta (CE) 1228-/2003 Erreklamendua indargabetzen duena; 715/2009 Erreklamendua, gas naturalaren garraio sareetara sartzeko baldintzei buruzkoa eta (CE) 1775/2005 Erreklamendua indargabetzen duena. Arau guztiak 2009ko uztailaren 13an onartuak (*Europako Erkidegoko Aldizkari Ofiziala* L 211, 2009/8/14).

## 2. Ingurumen eta energia gaietako oinarriak

Lisboako Tratatuak 2009ko abenduaren 1ean sartu zen indarrean, eta Europako oinarritzko araudia EBTK eta EBFTk osatu dute harrezkero. Era horretan, egun, EBren bi oinarritzko testu juridikook ingurumen eta energiari buruzko europar politiken legezko printzipioak biltzen dituzte (30).

EBTK garapen jasangarria ezartzen du EBren helburuen artean; hain zuzen, hauxe da helburu hori printzipio konstituzional deklaraturako munduko eskualde bakarra (31). 3. artikuluan egiten du, eta ikuspegi bikoitz batez, hala barnekoa nola kanpokoa. Izan ere, printzipio horren 3 zenbakiak barne merkatuaz dienez, Europar Batasunak garapen jasangarriaren alde lan egingo du, eta hiru zutarriz izango ditu: ekonomiaren hazkunde orekatsua, merkatuko gizarte ekonomia, eta ingurumenaren kalitatearen babes eta hobekuntza maila handi bat. 5 zenbakiak, berriz, ezartzen du munduko besteekin dituen harremanetan Batasunak bere balioak adierazi eta sustatuko dituela; hartara, beste jomuga batzuen artean, planetaren garapen jasangarrian lagunduko du.

Ingurumena eta energia EBren eta horko estatu kideen arteko eskumen partekatuak dira (EBFTko 4.2 art.). Ondorioz, arlo horretan, estatu kideek beren eskumena erabil dezakete baldin eta EBk berea erabili ez badu (EBFTko 2.2 art.). EBk, benetan, ekimenez erabili du Tratatuak esleitzen dion ahalorde hori. Ingurumen eta energia politiken oinarriak finkatzen dituen Jatorritzko Zuzenbidearekin batera, Europako erakundeek onartutako eta juridikoki lotesleak diren egintza ugari aurkitzen ditugu, haiek garatzen dituztenak eta bi gai horien inguruko Zuzenbide Eratorria eratzen dutenak. Erabilitako araudi bidea legegintzako prozedura arrunta da; haren bitartez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ingurumenari buruzko helburuak lortzeko garatuko diren ekintzak erabakitzen dituzte (EBFTko 192.1 art.), helburu horiek finkatzen dituzten ekintza programak ontzen (EBFTko 192.3 art.), eta energiari buruzko helburuak lortzeko beharrezko neurriak hartzen (EBFTko 194.2 art.).

Europar Batasunaren ingurumenari buruzko politikaren helburu zehatzak ondorengoak dira (EBFTko 191.1 art.): ingurumena zaindu eta babestea, eta ingurumenaren kalitatea hobetzea; pertsonen osasuna babestea; naturako baliabideak zehaztasunarekin eta zentzuz erabiltzea; ingurumena dela

(30) Atal honetan, «Europar Batasunaren Trataturen eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bertsio finkatuei» lotuko gataizkie (*Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala*, C 202, 2016/6/7). Lan honetan kontuan hartu da ere Eusko Jaurlaritzak egin dituen itzulpenak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Itzulzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez ([www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren/contenidos/informacion/tr\\_lisboa/eu\\_tr\\_lisboa/tr\\_lisbo.html](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren/contenidos/informacion/tr_lisboa/eu_tr_lisboa/tr_lisbo.html)).

(31) TORRE-SCHAUB, Marthe, «L'apport du principe de développement durable au droit communautaire: gouvernance et citoyenneté écologique», *Revue du Marché Commun et de l'Union Européenne*, 555 zenbakia, 2012, 89 orr.

tarteko munduan edo eskualdeka dauden arazoei aurre egiteko neurriak sustatzea nazioartean, bereziki klima aldaketaren aurka borrokatzeko. Nazioarteko neurrien bitartez, klima aldaketaren kontra borrokatzeko premia berezia Lisboako Tratatuak erantsitako gehigarri bat da, Batasunarentzat auzi horrek hartu duen garrantziaren erakusgarri.

EBren oinarrizko araudiak irmo baieztatzen du garapen jasangarria Batasunaren helburu bat dela, espresuki dioenean Batasuneko politikak eta ekintzak zehaztu eta gauzatzekoan, ingurumenaren babeserako eskakizunak sartu behar dira bertan, batez ere garapen jasangarria sustatzeko (EBFTko 11. art.). Oreak ekonomiko, gizarte justizia eta ingurumen osasuntsuaren arteko oreka bilatzen da, oinarrizko ideiatzat hartuz ingurumena bultzatzen duten politikak onuragarriak izan daitezkeela berrikuntza eta lehiakortasunerako. Horiek, aldi berean, ekonomiaren hazkundera zirikutzen dute, gizarte helburuak betetzeko ezin bestekoa dena(32). Horretarako, alde batetik, behar da ingurumenari buruzko helburu eta printzipioak gainerako politiketan ere ingurumenari buruzko politikan bezalaxe bete eta aplikatzea; bestetik, ingurumenari buruzko araudia modu globalean ulertu eta interpretatu behar da, gai horri buruzko helburu eta printzipio guztiak kontuan hartuz(33).

Ingurumena beste politiketan sartzen dela oso argi ikusten da egun europar energia politikaz ari garenean; hori Lisboako Tratatuak emandako berrikuntza batean islatu zen, gai horri buruzko arauketa independentea sartu baitzuen. Arauketa hori EBFTren XXI. Tituluan agertzen da, alegia, ingurumenari buruzko tituluaren ondoren. Haren prezeptu bakarrak bi politiken artean dagoen lotura adierazten du, Europar Batasunaren energia politikaren helburuak ingurumena zaindu eta hobetzeko eskakizuna dagoela kontuan izanik ezartzen baititu (TBEFeko 194.1 art.). Energia merkatuaren funtzionamendua eta horniduraren segurtasuna bermatzeaz gain eta energia sareen arteko konexioa sustatzeaz gain, Tratatuak europar politikako energiari buruzko helburuen artean biltzen du eraginkortasun energetikoa eta energia aurreztearen bultzatzea, eta energia berri eta berriztagarrien garapena bultzatzea(34). Era horretan, energia eta ingurumen arloek duten harreman estua araudiari dagokionez Europar Batasuneko Jatorrizko Zuzenbidean ere geratzen da agerian(35). Are, baieztza deza-

(32) EUROPAR BATZORDEA, *Un medio ambiente de calidad. La contribución de la UE*, OPOCE, Brusela-Luxemburgo, 2006, 3 orr.

(33) KULOVESI, Kati, MORGERA, Elisa eta MUÑOZ, Miquel, «Environmental integration and multifaceted International dimensions of EU law: unpacking the EU's 2009 climate and energy package», *Common Market Law Review*, 48-3 zenbakia, 2011, 834 orr.

(34) Helburu horrek zuzenean du erlazioa klimari buruzko agendarekin eta, beraz, ingurumenari buruzko politikaren helburuekin. GUSEV, Alexander S., *op. cit.*, 81 orr.

(35) Gai horren inguruan, ikus MOUSSIS, Nicolas, *EU Environment & Energy Policies: Two Interwoven Legislative Areas*, European Study Service, Rixensart (Belgika), 2009.

kegu Batasunean energia eta ingurumen gaietako politika integratua eramaten dela; beraz, bi arloen arteko harremana eta mendekotasuna araudien sinbiosi moduko bat eragin du (36).

Hori bai, aurrera egin arren, Lisboako Tratatuak ez du lortu estatu kideek beren energia subiranotasuna lagatzeko dituzten eragozpenak baztertzea (37). Izan ere, EBk neurriak hartuagatik, estatu kideek ez dute galduko eskubidea beren energia baliabideak ustiatzearen baldintzak zehazteko, energia iturri bat edo bestea hautatzeko eta energia hornidurarako zein egitura orokor nahi duten hautatzeko (EBFTko 194.2 art.). Beraz, EBren barruan estrategia bateratuak ondu arren, paperaren gainean estatu kide bakoitza jarraitzen du eskumenduna izaten energia hornidura politiketan beren erabakiak hartzeko (38).

Lisboako Tratatuak ere berrikuntza berezi bat sartu zuen energiaren arloan, hornidura segurtasunaren inguruan zegoen kezkarri erantzunez. EBFTko 122. artikuluan adierazitako elkartasun printzipioaren aplikazioa da; haren bitartez, estatu kide batek energia hornidura zailtasun larriak pasatzen baditu, gainerakoek hornitzen lagunduko diote.

Lisboako Tratatu indarrean sartu eta gutxira, EBk proposamen bat argitaratu zuen 2008an piztutako nazioarteko ekonomia krisitik ateratzeko eta Europako ekonomia hurrengo hamarkadari begira prestatzeko: *Europa 2020 Estrategia* (39). Elkarri lotutako lehentasunezko hiru arlotan oinarritzen da: hazkunde adimentsua, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatuz; hazkunde jasangarria, karbono maila txikiko eta, baliabideei dagokienez, efizientea den ekonomia sustatuz; eta hazkunde integratzailea, gizarte eta lurralde kohesioa sustatuko duen enplegu maila altuko ekonomia bat hauspotuz.

Arlo horietan aurrera egiteko, estrategiak bost helburu nagusi zehaztu zituen. Aztergai dugun eremuan, haietako hirugarrena nabarmendu behar da, klima eta energia gaietako 20/20/20 helburua deitua. BEG isurien % 20 murriztea bilatzen du, edo % 30, horretarako baldintzak baleude; guztizko energia kontsumoko energia berriztagarrien proportzioa % 20 igotzea; eta energia kontsumoa % 20 jaitea, energia efizientzia handiago batera heltzeko.

Energia gaiari argi eta garbi lotuz, estrategiak oinarritzko ekimen bat du, «Baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen Europa bat» deitua.

(36) LÓPEZ SAKO, Masao Javier, 81 orr.

(37) BEDIA BUENO, Gemma, «El Derecho de la Energía, las Políticas Europeas y la Transición Energética en la Unión Europea», *Cuadernos Cantabria Europa*, 16 zenbakia, 2017, 49 orr.

(38) MORÁN BLANCO, *Sagrario*, op. cit., 141 orr.

(39) EUROPAR BATZORDEA, 2010eko martxoak 3ko komunikazioa, *Europa 2020. Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador*, COM (2010) 2020 final. Ekainean Europar Kontseiluak proposamena onartu zuen eta berea egin zuen. 2010eko ekainak 17ko Bruselako Europar Kontseilua – Presidentetzaren Ondorioak, EUCO 13/10.

Baliabideak eraginkortasunez eta karbono isuri gutxirekin erabiltzen dituen ekonomia baterantz aldatzea sustatzen du, ekonomiaren hazkundera eta baliabide eta energiaren erabilera elkarrengandik bereiziz, CO<sub>2</sub> isuriak murriztuz, lehiakortasuna sendotuz eta energia segurtasun handiagoa bultzatuz. Hazkundera itzultzeko estrategiak ematen zituen tresnen artean, bi nabarmenduko ditugu: alde batetik, klima aldaketaren kontrako borroka, baliabideen erabileran eraginkortasuna hobetzea eskatzen duena; era horretan, isuriak mugatzen lagunduko dugu. Bestetik, energia garbi eta eraginkorra; bertan, Europako energia helburuak lortzeak (20/20/20) aurrezpen nabarmena ekarriko luke 2020 arte, petrolio eta gas inportazioak gutxitzearen bitartez, baina baita BEG isuriak murriztearen bidez ere.

Europa 2020 Estrategiako edukien garapenak are estuago lotzen zituen energia politika eta klimari buruzko ekintza; izan ere, energia arloko neurriak instrumentu guztiz baliozkoak dira klima aldaketaren ondorioen kontra eraginkortasunez borrokatzeko. Horren adibide dugu energia lehiakor, jasangarri eta seguruaren aldeko proposamena (40). Jada zehaztutako EBren energia helburuetatik abiatuz, energia lehentasun zehatzak ezarri ziren. Horien artean, ondorengoak nabarmentzen ziren: batetik, energiaren % 20 arteko aurrezpena 2020 arte; horretarako, garraioen jasangarritasuna hobetu egin behar zen, eta energia kontsumo handiko produktuentzako diseinu ekologikoko baldintzak ezarri. Bestetik, goi errendimenduko eta karbono intentsitate gutxiko teknologia berritzaileak garatzea. Gainera, munduan karbono isuri txikiko etorkizuna sustatzeko nazioarteko hitzarmenak sendotzea.

Energia berriztagarrien aldeko apustua ideia honetan oinarritzen da: energiaren arlotik karbonoa ezabatzeko orduan, karbono isuri gutxiko energia iturrien konbinazio dibertsifikatu batera jotzea da ekonomiaz modu eraginkorrena (41). Batzordeak 2011 amaieran eman zituen eza-gutzero EBren energia sistematik karbonoa ezabatzeko lortzeko bideak zein izan zitezkeen (42): energia aurrezte, energia horniduran energia berriztagarrien ehuneko handitzea, energia berriztagarriak sartzea erraztuko duten azpiegiturak eraikitzea, Europako energia merkatuen integrazioa, karbono isuri txikiko teknologietan inbertitzea. Halaber, araudia eguneratu egin zen, energia efizientzia energiaren azken kontsumoa murriztuz lortzeko, batez ere sektore publikoan, industrian, eraikinetan,

---

(40) EUROPAR BATZORDEA, 2010eko azaroaren 10eko komunikazioa, *Energía 2020: Estrategia para una energía competitiva, sostenible y segura*, COM (2010) 639 final.

(41) OETTINGER, Günther, «El futuro de la energía en la Unión Europea», Cuadernos de Energía, 41 zenbakia, 2013, 17 orr.

(42) EUROPAR BATZORDEA, 2011ko abenduaren 15eko komunikazioa, *Hoja de Ruta de la Energía para 2050*, COM (2011) 885 final.

eta energia hornitzaileen jardueran, baita kontsumitzaileen beren eskutik ere (43).

### III. Garapen jasangarriaren aldeko energia politikaren egungo tresnak

#### 1. 2030erako klima eta energia esparrua

2014ko urtarrilean, Batzordeak proposamen bat aurkeztu zuen 2030ari begira klima eta energiari buruzko politiketarako esparru berri bat sortzeko, era horretan berriz erakutsiz Europako energia politikara jotzen duela klima aldaketaren kontra borrokatzeko eta ingurumena babesteko (44). Bertan, gainera, 20/20/20 helburuaren lorpen partzialak biltzen ziren, eta Batzordeak adierazi zuen 2030erako helburu zehatzak adierazteak helburu hura betetzen aurrera egiten erraztu zezakeela, ondo bideratuta zegoen arren. Bai, izan ere, 1990. urtearen aldean, BEG isuriak % 18 murriztu ziren 2012an, eta aurreikusten zen 2020an murrizketa % 24ra heltzea, eta 2030ean % 32ra; energia berriztagarrien kuota % 13 hazi zen 2012an azken energia kontsumoarekiko, eta 2020an % 21era heltzea aurreikusten zen, 2030ean % 34ra; EBk elektrizitatearen % 44 gutxi gorabehera iturri berriztagarrietatik helduta instalatu zuen 2012 amaieran; EBko ekonomiaren energia intentsitatea % 24 jaitsi zen 1995tik 2011ra, eta karbono intentsitatea % 28 gutxitu. Batzordeak, pixka bat geroago nabarmendu ere egin zuenez, 2020an % 20ko energia aurrezpena hartzeko aukera zegoela egiaztatuta, energia aurrezteko dinamikari eutsi egin behar zaiola adierazi zuen, eta energia efizientzia gaietan asmo handiagoko helburu bat proposatu, % 30ekoa (45).

Europako Kontseiluak *Klimaren eta energiaren arloko 2030. urte arteko jarduketa esparrua* onartu zuen 2014ko urrian (46) eta, bertan, bere egin zituen Batzordeak proposatutako helburuak. Lehendabizi, EBrentzako helburu lotesletzat finkatu zen 2030erako BEG isuriak 1990eko balioen aldean gutxienez % 40 murriztea. Bigarrenik, helburu lotesle gisa ere, ezarri zen EBko guztizko energia kontsumoaren barruan 2030ean energia berriztagarrien kuota gutxienez % 27koa izatea. Bi kasuetan ere, estatu kide bako-

(43) Aipagarria da 2012ko urriaren 25eko 2012/27/UE Zuzentaraua, energia efizientziari buruzkoa (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 315, 2012/11/14).

(44) EUROPAR BATZORDEA, 2014ko urtarrilaren 24ko komunikazioa, *Un marco estratégico en materia de clima y energía para el período 2020-2030*, COM (2014) 15 final.

(45) EUROPAR BATZORDEA, 2014ko uztailaren 23ko komunikazioa, *La eficiencia energética y su contribución a la seguridad de la energía y al marco 2030 para las políticas en materia de clima y energía*, COM (2014) 520 final.

(46) 2014ko urriaren 23 eta 24ko Bruselako Europar Kontseilua – Presidentetzaren Ondorioak, EUCO 169/14.

tzak bere estaturako helburu altuagoak ezar ditzake. Hirugarrenik, EB osorako, 2030ean energia efizientzia gutxienez % 27 hobetu dela adierazten duen helburu bat ezarri zen, 2020 baino lehen berrikustekoa, % 30era igotzeko aukera aztertzeko. Gainera, Europako Kontseiluak adierazi zuen garrantzi berezia zuela guztiz konektatuta dagoen energiaren barne merkatu bat egitea. Batzordeak 2012an jada proposatu zuen energiaren barne merkatua 2014rako lortuko zela(47), baina argi zegoen hori ez zela gertatuko ikusita estatu kide askok atzerapena zeramatela dagokion araudia beren legedira iraultzen eta osoki aplikatzen. Horregatik, Europako Kontseiluak EBko herrialdeen arteko % 15eko lotura elektriko bat jarri zuen helburutzat ere(48).

Ikus daitekeenez, 20/20/20 helburua 2030eko 40/27/27 helburua izatera pasa zen, eta EBk berak asmo handikotzat jo zuen hori, Europako Parlamentua helburu zehatzak areagotzearen alde agertu bazen ere(49). Dena den, ikusita goian aipatu dugun 2020rako 20/20/20 helburuak nolako betetze maila zeraman, ez dirudi helburu bereziki estuak zirenik, edo gehiegizko zailtasuneko ahalegin bereizirik eskatzen zutenik. Horren arrazoia da ezarritako helburuak oreka politikoaren fruitu direla, ingurumenaren aldekoenak diren jarreraren eta ekonomiaren lehiakortasunaren gaineko inpaktuagatik kezka handiena adierazten dutenen artean(50). Kritikatu izan da, gainera, elektrizitate arloko industria eta enpresa elkarteek beharbada eragin ahalmen handiegia izan zutela, bereziki 2030erako energia eta klima esparruaren aurreko kontsulta eta gogoeta aldi; izan ere, Batzordeak energiaren enpresa handiek aspaldi honetan egin dituzten eskaerak jarraitu zituen bere proposamenean(51).

(47) EUROPAR BATZORDEA, 2012ko urriaren 3ko komunikazioa, *Acta del Mercado Único II – Juntos por un nuevo crecimiento*, COM (2012) 573 final.

(48) Helburu berri bat ezarri den arren, berriz ere argi geratzen zenez, estatuek uko egiten diote energia subiranotasuna galtzeari eta, beraz, energiaren merkatu funtzionamendua bermatzeko eta energia sareen arteko lotura sustatzeko helburuak formalagoak eta teorikoagoak dira praktikoak eta errealak baino. PÉREZ DE LAS HERAS, Beatriz, «Las políticas de seguridad energética en la Unión Europea y los Estados Unidos: desafíos globales y compromisos comunes en la transición hacia un modelo energético más sostenible», *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 47 zenbakia, 2014, 23 orr.

(49) Bai, Europako Parlamentua BEG isuriak 2030erako 1990en aldean % 40 murrizteko helburu loteslearekin bat bazetorren ere, energia efizientziaren helburua ere 2030erako % 40ra igotzea eskatu zuen, eta EBren guztizko energia kontsumoaren barruan energia berriztagarrien kuota 2030erako % 30ekoa izatea. Europako Parlamentua, 2014ko otsailaren 5eko Erabakia, 2030eko klima eta energiarako politiken esparru bati buruzkoa (2013/2135(INI), *Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* C 93, 2017/3/24, 87 orr.

(50) ARANZADI, Claudio, «UE 2030: objetivo clima y energía», *Política Exterior*, 29-163 zenbakia, 2015, 46 orr.

(51) Arrazoibide horri lotuz, adierazten denez, industria lehiakortasuna bultzatzeko klimari buruzko helburuak alboratzeko premia dagoelako ideia erroto da. MORENO REGAÑA, Ana, «Hegemonía y capital transnacional en la Unión Europea. El marco para el clima y la energía», *Relaciones Internacionales*, 31 zenbakia, 2016, 107 orr.

Bestetik, energiaren inportatzaile garbiak diren herrialde gehienetan gertatzen den bezala, EBren energia segurtasuna horniduraren segurtasunari lotuta ikusten zen, inportazioen gero eta mendekoago(52). Horregatik, 2006 eta 2009ko nequetan gas horniduran aldi batez jasandako asalduren ondoren, 2011ko Arabiar Udaberritik eratorritako ezegonkortasunaren ondoren eta Ukrainian bizitzen ari zen egoera ikusita, EB kanpoko energiaren nahasmenduekiko ahuldadea gutxitzen hasi behar zen. Horrenbestez, Batzordeak Europaren Energia Segurtasunerako Estrategia argitaratu zuen 2014ko maiatzean(53), hornidurako ahuldadeei aurre egiteko hainbat arlotan aurrera egiteko.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da EBko estatu kideek ugari kontsumitzen dituztela erregai fosilak gehienez eta, kasuren batean salbu, ahulak dira energiari dagokionez. Batzordeak nabarmendu izan du EBk kontsumitzen duen energiaren % 53 inportatzen duela. Inportazioen mendekotasuna petrolio gordinari lotuta dago (ia % 90ean), gas naturalari (% 66an) eta, neurri txikiagoan, erregai solidoei (% 42an) eta erregai nuklearrari (% 40an). Energia horniduraren segurtasunaren gaiak estatu kide guztiei eragiten die, batzuk beste batzuk baino ahulagoak diren arren, bereziki integrazio eta konexio txikiena duten eskualdeak, hala nola Baltikoa eta Ekialdeko Europa(54). Beste arazo gehigarri batzuk ere ezin dira ahaztu, adibidez, azpiegituren zahardadea, ezin baitute absorbitu energia berriztagarrien ekoizpen gero eta handiagoa; estatuen 28 araudi esparru egotea; edo auzokoekin konexio nahikorik ez duten herrialdeak egotea(55).

Energia segurtasunari buruzko estrategia 2020erako klimaren eta energiaren esparruari lotuta sortu zen, Batasunaren energia segurtasuna ezin baita banandu karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterantz aurreratzeko premiatik, inportatutako erregai fosilen erabilera murriztuko duena. Hori

(52) 2000ko lehen hamarkadan, energia mendekotasuna, 27 kideen osotasunerako energia inportazio garbi gisa neurtua, areagotu egin zen: % 75,7tik (2000) % 84,3ra (2010) petrolioari dagokionez, eta % 48,9tik (2000) % 62,4ra (2010) gaserako, eta gorantz jarraitzen du joerak. VALDÉS, Javier, «Evolución y consistencia en la política de seguridad energética de la UE: los Proyectos de Interés Común», *Papeles de Europa*, 29-2 zenbakia, 2016, 70 orr.

(53) EUROPAR BATZORDEA, 2014ko maiatzaren 28ko komunikazioa, *Estrategia Europea de la Seguridad Energética*, COM (2014) 330 final.

(54) Batzordeak bere oharrean nabarmentzen duen bezala, energiaren hornidura segurtasunaren arazo larriena kanpoko hornitzaile bakarrekiko mendekotasun handia da, bereziki gasaz ari garela; izan ere, sei estatu kide Errusiaren mendeko dira, gas inportazio guztietarako kanpoko hornitzaile bakarra duten neurrian, eta horietako hiruk gas naturala baliatzen dute beren guztizko energia beharizanen laurden baterako baino gehiagorako. EUROPAR BATZORDEA, *Estrategia...*, op. cit., 2 orr. Gain honen inguruan ikus MORÁN BLANCO, Sagrario, op. cit., 97-131 orr. (3. kapituloa: «La dependencia energética de la Unión Europea»).

(55) RUIZ GONZÁLEZ, Francisco José, «El reto de la seguridad energética para la Unión Europea», *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*, 6 zenbakia, 2015, 119 orr.



lortzeko, estrategiak jada existitzen den joera bati eutsi eta bultzatu nahi du, alegia, EB dela elektrizitatearen % 50 berotegi efekturik gabeko isuririk gabe ekoizten duen eragile ekonomiko handi bakarra(56). Aldi berean, energia segurtasunerantz aurrera egiteko estatu kideen arteko lankidetzaz egoteko behar diren oinarriak ezartzen ditu: EBk energia arazo larriari aurre egiteko ahalmena areagotzea; larrialdi eta elkartasun mekanismoak sendotzea; energia eskaria moteltzea; barne merkatu eraginkor eta integratu bat garatzea; EBren energia ekoizpena areagotzea; energia teknologien garapena sendotzea; kanpo hornidura iturriak dibertsifikatzea; estatuen energia politiken koordinazioa hobetzea, eta kanpoko energia politikan aho bakarrez aritzea.

## 2. Energia Batasuna

Orain arte aztertutakoa kontuan hartuz, EBk bazituen jada eskumenak eta beharrezko bitartekoak energia politika bat abian jartzeko, helburu hauek aldean hartuta: energia hornidura segurtatzea, energiaren prezioak lehiakortasunerako traba ez direla bermatzea, ingurumena babestu eta klima aldaketaren kontra borrokatzea, eta energia sareak hobetzea(57). Ideia hori garatuz, EBk Energia Batasunerako estrategia abian jarri zuen 2015ean, Batzordeak otsailean egindako proposamenean oinarrituz(58). Proposamenaren helburua da klimari buruzko politika anbiziotsu bati helduz, energia seguru, jasangarri, lehiakor eta prezio onekoa eskaintzea eta, horretarako, bost alderdiri begiratzen dieten ekintzak garatzen dira: energia segurtasuna, guztiz integratutako energiaren Europako merkatu bat, energia efizientzia, ekonomiaren deskarbonizazioa, eta energia arloko ikerketa eta berrikuntza. Bost alderdi horiek elkarri hertsiki lotuta daude, Europa mailan energia batasunaren helburuak lortzeko integrazio eta koordinazio handiagoa behar dituzten arloak adierazten baitituzte(59).

Alderdi horien arteko elkarrekintza argi eta garbi nabaritzen da energia segurtasunari dagokionez, haren ezin besteko faktoreen artean, aipatzen baitira energiaren barne merkatua eta energia kontsumo efizienteagoa

---

(56) Batzordeak berak nabarmentzen duenez, ehuneko hori energia berriztagarrien % 23ren eta energia nuklearraren % 27ren arteko baturatik ateratzen da. EUROPAR BATZORDEA, *Estrategia...*, *op. cit.*, 3 orr.

(57) EUROPAR BATZORDEA, *Comprender las políticas de la Unión Europea: Energía*, Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa, Luxemburgo, 2014, 4 orr.

(58) EUROPAR BATZORDEA, 2015eko otsailaren 25eko komunikazioa, *Estrategia Marco para una Unión de la Energía resiliente con una política climática prospectiva*, COM(2015) 80 final. Europar Kontseiluak martxoan onartu zuen dagokion konpromisoa. 2014ko martxoaren 19 eta 20ko Bruselako Europar Kontseilua – Presidentetzaren Ondorioak, EUCO 11/15.

(59) RISTORI, Dominique, *op. cit.*, 21 orr.

izatea. Era berean, energia iturrien, hornitzaileen eta ibilbideen beharrezko dibertsifikazioak, energia hornidura segurua eta arrazoizko prezioak bermatzeko ezin bestekoa izateaz gain, energia berriztagarrien alde apustu egitera bultzatzen du, ekonomia deskarbonizatzeko beharrezkoak baita. Alderdi horretan, indartu egiten da ondorengo garrantzia: barnera begira, estatu kideek hornidura segurtasunari buruz lankidetzan aritzea eta, kanpora begira, Europak energiaren munduko merkatuetan duen rola sendotzea (60).

Bigarren alderdiak, EBko energiaren merkatu integratu bat lortzeak, Europan energia sistema eraginkorrago bat garatzea du xedetzat. Horretarako, estatu kideen arteko loturaren eta haien arteko energia elkartrukearen aldeko apustua egiten da. Halaber, energia gaietako eskualdeko lankidetzak bultzatuko da. Alderdi garrantzitsua da energiaren barne merkatua integratzeko; izan ere, gaurdaino, estatu kideek beren mekanismoak aplikatu izanak EBko eta estatuan estatuko erakundearen arteko gatazkak eragin izan ditu. Horregatik, estatu bakoitzaren interesen defentsaren aurrean, herrialdeen eta eskualdeen arteko elkartasuna behar da, bakarrik Europaren, estatuen eta eskualdeen interesak elkarrekin ondo ezkontzeak ahalbideratuko baitu energiaren benetako Europar Batasun bat sortzea (61).

Energia efizientziaren alderdia energia eskaria moteltzeko ekarpena da. Horri buruz, 2030erako klima eta energia esparruak Energia Batasunerako estrategian ere integratuta geratzen zen, aipatutako 40/27/27 helburua osoki bere egitean, baita % 30eko energia efizientziaren helburua 2020 baino lehen zabaltzeko aukera ere (62). Bi arlo zehatzetan, eraikuntza eta garraioan, energia efizientzia handitzearen garrantzia nabarmentzen da, eta horrek berriz jartzen du agerian askotariko alderdiek elkarrekin duten harremana, aipatutako helburua lortzeko aldi berean deskarbonizazioa bultzatu behar baita, bereziki garraioan, energia berriztagarrien eta erregei alternatiboen aldeko apustua eginez.

Laugarren alderdia, ekonomiaren deskarbonizazioa, hertsiki lotzen zaio klimaren aldeko ekintzari, nagusiki BEG isuriak murriztearen bidez

(60) Energia Segurtasunaren Europako Estrategia Energia Batasunean sartuta geratzean, lehen esan dugun bezala, kanpoaldearen alderdi horren garrantzia sendotuta atera zen, lehentasun iraunkorra izatera pasa baitzen, ez bakarrik krisi aldietan. Hala biltzen da Energia Batasunaren egoerari buruzko lehen txostenari erantsitako lan dokumentuan, COM (2015) 572 final. EUROPAN BATZORDEA, *State of the Energy Union 2015. Commission Staff Working Document on the European Energy Security Strategy*, SWD (2015) 404 final, 10 orr.

(61) DE CARLOS IZQUIERDO, Javier, «La estrategia de seguridad energética de la Unión Europea y España», *Boletín I.E.E.E.*, 1 zenbakia, 2016, 561 orr.

(62) Energia Batasunak, 2030erako aurreikusitako helburuak ez ezik, 2050eko bide orria ere hartzen du kontuan. Helburu horien esparruan ulertu behar da energia batasuna. FABRA PORTELA, Natalia, «La Unión Energética: instrumento para la transición energética en Europa», *Información Comercial Española ICE*, 902 zenbakia, 2018, 66 orr.

eta energia berriztagarrien aldeko apustuaren bidez. Berriz ere, 2030rako energiaren eta klimaren esparruarekiko eta 40/27/27 helburuarekiko lotura dago, eta horri gehitu behar zaio Parisen izango zen klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentzian jarrita zegoela begia eta, bertan, helburua zutela isuriak murrizteko juridikoki loteslea zen hitzarmen bat lortzea.

Bukatzeko, energiaren arloko ikerketa, berrikuntza eta lehiakortasunaren alderdiak Energia Batasunerako aurreikusitako alderdi guztien arteko harremanean du eragina. Hala, teknologia berriztagarrien belaualdi berri bat garatzeko eta biltegitratzeko soluzioen premia aipatzen da; horrek energia segurtasuna eta efizientzia hauspotuko ditu eta, aldi berean, BEG isuriak murriztuko dira. Berriz ere deigarria da ikustea energia nuklearren aldeko apustua egiten jarraitzen dela: estrategiak azaltzen duenez, EB arlo nuklearrean lidergo teknologikoari eusten saiatu behar da energia mendekotasuna ez handitzeko moduan, egia bada ere gutxienez estatu kideei eskatzen diela segurtasun, babes, hondakinen kudeaketa eta ez ugaltzeko arau zorrotzenak aplikatuko dituztela bermatzea (63).

Ikus daitekeenez, Energia Batasuna EBk energia trantsizio bat eragiteko proposatu zuen erantzun komuna da, une horretan munduan hainbat gertaera jazotzen ari baitziren, eta kolokan jartzen ari ziren energia segurtasun, klima aldaketaren kontrako borroka eta ingurumenaren babes gaietako helburuak: Ukrainiako gerra, Errusiari buruzko mesfidantza, ikatzaren prezio apalak, krisi ekonomikoa, energia inportazioekiko mendekotasunaren hazkundera, baliabide ez arrunten goraldia (64). Hain zuzen, azken horiei buruz eta Amerikako Estatu Batuetan hidrokarburu ez arrunten ustiapena izaten ari zen arrakastaren aldean, Europan ez dago pentsatzerik antzeko ekoizpen egoera batean izango garela epe laburrera; ez da ere aukera garrantzitsu bat energia kostuak oro har merkatzeari begira (65).

Dena den, deigarria da, deskarbonizaziorako EBk energia nuklearren aldeko apustua egiten jarraitzeaz gain (BEG isurtzen ez dituen neurrian), Batzordeak Europaren energia mendekotasuna gutxitzeko petrolioa eta gas iturri ez arruntak ekoizteko aukera onartzea. Gutxienez, eskertzekoa da hori aukeretako bat izatea, betiere herritarren onarpena eta ingurumenaren gaineko inpaktua behar bezala kontuan hartu eta

---

(63) EUROPAR BATZORDEA, *Estrategia Marco...*, *op. cit.*, 18-19 orr.

(64) HERRERO DE CASTRO, Rubén David, *op. cit.*, 91 orr.

(65) RIBERA RODRÍGUEZ, Teresa, SPENCER, Thomas, SARTOR, Oliver eta MATHIEU, Mathilde, «La Unión Europea y la revolución americana de los no convencionales», *Economía Exterior*, 68 zenbakia, 2014, 37 orr.

gero (66). Argi dago EBren apustu seguruenak, hala ekonomiari nola energiari begira, trantsizio kolektiboko prozesu bat egitea jarraitzen duela, sistema efizienteago baterantz eta energia berriztagarrien proportzio handiago baterantz; dirudienez, Energia Batasunak bide hori darama.

Gaurdaino, Batzordeak hiru txosten igorri ditu Energia Batasunaren egoerari buruz (67). Horietako hirugarrenean, 2017ko amaierakoan, zehaztu zen Energia Batasuna errealtate bat izan behar dela 2019an, EB osoan izandako aurrerapenak ikusita. Horien artean, aipatzen zen 2015ean iturri berriztagarrietatik datorren energiaren % 16,7ko kuota lortzea, 2016an BEG isurien % 80ko murrizketa 1990arekiko, edo energia eskariaren etengabeko jaitziera (EBk % 2,5 energia primario gutxiago kontsumitu zuen 1990ean baino, baina aldi horretan BPG % 53 hazi zen). Aldiz, irmo baieztatzen da premia handia dela energia kontsumoa murrizten jarraitzekoa, eta efizientzia areagotzekoa, eta energia garbirako trantsizioa egiteko oztopoak eragozteak, adibidez, estatu kideek erregai fosilentzako diru laguntzei eusteak sor dezakeen lehia desleiala (68).

### 3. Energia Garbirako lege sorta

2016ko azaroan, Batzordeak asmo handiko energia garbi eta ekonomia hipokarbonikorako trantsizioko gaitako proposamen multzoa aurkeztu zuen (69). *Energia Garbirako lege sorta* deituak energia berriztagarri gaitako neurri multzo bat biltzen du, tartean sartuz energia efizientzia handitzea (70). Energia segurtasunari ere erreparatzen dio; izan ere, proposamen horren bidez, EBk Errusiako gas inportazioen mendekotasuna murrizteko estrategia geopolitikoa aldatu bide du, trukean

(66) EUROPAR BATZORDEA, *Estrategia Marco...*, op. cit., 5-6 orr.

(67) EUROPAR BATZORDEA, 2015eko azaroaren 18ko komunikazioa, *Estado de la Unión de la Energía 2015*, COM (2015) 572 final; 2017ko otsailaren 1eko komunikazioa, *Second Report on the State of the Energy Union*, COM (2017) 53 final; 2017ko azaroaren 23ko komunikazioa, *Third Report on the State of the Energy Union*, COM (2017) 688 final.

(68) Ahalegin handiagoak egiteko beharra argiago geratzen da estatu kide batzuetan beste batzuetan baino, neurri desberdinetan betetzen ari baitira energia helburuak. Arriskua da bi abiadurako Europa bat sendotzea eta, hartara, Energia Batasuna arriskuan jartzeko aukera. GUTIÉRREZ ROA, Tomás, «La Unión de la Energía y su impacto en las relaciones exteriores comunitarias», *Boletín I.E.E.E.*, 10 zenbakia, 2018, 922 orr.

(69) FERNÁNDEZ DE GATTA SÁNCHEZ, Dionisio, «Unión Europea: inicio del debate sobre la transición energética», LÓPEZ RAMÓN, Fernando (koordinatzailea), *Observatorio de Políticas Ambientales 2017*, CIEMAT, Madril, 2017, 59 orr.

(70) EUROPAR BATZORDEA, 2016ko azaroaren 30eko komunikazioa, *Energía limpia para todos los europeos*, COM (2016) 860 final.

energia iturriak iturri berriztagarrien alde dibertsifikatuz eta erregai fosilen, tartean gas naturalaren, mendekotasuna murriztuz(71). Sorta horretan, hainbat lege egintza ontzea sartzen da, tartean nabarmen Energiaren Gobernantzari buruzko Erreglamendua, Energia Berriztagarriei buruzko Zuzentaraua, eta Energia Efizientiaren Zuzentaraua(72). Sortak biltzen dituen energia neurrien helburuetan ondorengoak sartzen dira: energia efizientzia aurretik jartzea, energia berriztagarri gaietako munduko lidergoa lortzea, eta kontsumitzaileei bidezko tratua eskaintzea (prezio gaietan).

Energia efizientzia aurretik jartzearen ideiak esan nahi du onartu behar dela sortu edo erabili behar ez dena dela energia merke eta garbiena. Horretarako, EB osorako loteslea den energia efizientiaren 2030erako helburua berrikusi egin zen (klimaren eta energiaren esparruan aurreikusten zen bezala), % 27tik 30era igoz; horrek BEG isuriak murriztearen gaian helburuak lortzeko modua ematen du. Erabaki horrek agerian uzten jarraitzen du EBk energia trantsizioari eta, horretan kokatuta, energia efizientiaren faktoreari ematen dion ikusgaitasuna eta garrantzia XXI. mendeko geopolitika eta klimako erronken aurrean. Lehendabiziko erregaia deitzen dio, eta EB barruan, energia iturri latente nagusi gisa sustatzen du» (73).

EB energia berriztagarrien munduko liderra bihurtzeko helburua 2030ean gorpuztu nahi da, eta lortu da elektrizitate berriztagarria EBko ekoizpen elektrikoaren konbinazioaren erdia osatzea. Haize energiari dagokionez, EB liderra zen oharra aurkezteko orduan. Eguzki energia fotovoltaikoa ere Europako puntako arloa da, baina aitortzen da hura fabrikatzeko ahalmena handitu egin behar dela. Beroa eta elektrizitatea sortzeko biomasa solidoari dagokionez, klimarekin begirunea duen arlotzat hartzen da, baina basoen gaineko presio gehigarria mugatzeko, horien kudeaketa jasangarria eskatzen da, eta ekonomia zirkularrarekin sinergiak bilatzea. Hori guztia, 2030erako energia eta klima esparruan ere aurreikusten den

---

(71) ESCRIBANO FRANCÉS, Gonzalo eta LÁZARO TOUZA, Lara, «Energía y clima en 2017: volatilidad contenida, implementación climática e incertidumbre política», *Análisis del Real Instituto Elcano (ARI)*, 31 zenbakia, 2017, 9 orr. Gas naturalaren garrantziaren arrazoia da deskarbonizazio aurreratuko eszenategi batean, gasa dela trantsizioko energiatzat hartzen den erregai fosil bakarra; beraz, EBren osotasunean, gasaren erabilerak elektrizitate sorkuntzaren eta bero sorkuntzako sistemen konbinaziotik ikatza era ordenatuan ateratzen lagunduko du, aukera berriztagarriak ez baitira beti eskueran egongo kostuz modu efiziente. OLABE, Antxon, GONZÁLEZ-EGUINO, Mikel eta RIBERA, Teresa, «Hacia un nuevo orden mundial de la energía», *Documento de Trabajo del Real Instituto Elcano*, 12 zenbakia, 2017, 17-18 orr. Gas iturriak dibertsifikatzeko modu batzuk Kaspiar itsasoarekin eta Magrebekin konexioak egitea izan daiteke. GUTIÉRREZ ROA, Tomás, *op. cit.*, 924-927 orr.

(72) Proposatutako lege multzoak 2015ean aurkeztutako Energia Batasunerako Oinarriko Estrategian proposatutako neurrien % 90a hartzen du kontuan. LÓPEZ-NICOLÁS BAZA, Antonio, «El liderazgo de la Unión Europea en Energías Renovables: el paquete de Energía Limpia de la Comisión Europea», *Cuadernos de Energía*, 55 zenbakia, 2018, 22 orr.

(73) HERRERO DE CASTRO, Rubén David, *op. cit.*, 94-95 orr.

bezala, bat dator EBn kontsumitutako energian urte horretan energia berriztagarrien % 27ko kuotara gutxienez heltzeko helburuarekin. Hain zuzen, energia efizientziari buruzko aurreko ehunekoaren igoeraren aldean, ehuneko hori mantentzea, kritikatu izan zen, ez baitzen nahikotzat hartzen Europaren energia mendekotasuna murrizteko; gainera, ehunekoa % 30era igo izanez gero, hobe izango zen lehiakortasunerako ere (74).

2017ko otsailean, Batzordeak txosten bat aurkeztu zuen EBko energia berriztagarriei buruz (75). Txostenean, nabarmena zen jada energia segurtasunak betetzen zuen rol garrantzitsua; hain zuzen, 2014an, % 16ra heldu zen energia iturri berriztagarriek guztizko energia gordinaren kontsumoan zuten kuota. 2015erako estimazioa % 16,4ra heldu zen, baina azkenean % 16,7koa izan zen, lehen esan dugun bezala (76). Hala ere, txostenak nabarmendu zuen areagotu behar zirela joera horri eusteko ahaleginak, eta 2030erako % 27ko kuotaren aurreikusitako helburua bete. Horretarako, egun batzuk geroago, Batzordeak Zuzentarau berri bat onartzeko prozesua jarri zuen martxan, gaiari buruzko proposamen espezifikoak aurkeztuz (77). Proposamenaren garrantzia erabakigarria da, ezin bestekotzat jotzen baita ekonomiaren hazkunderako, enplegua sortzeko eta Batasuneko energia segurtasuna hobetzeko, eta hura da bitarteko nagusia estatu kideek 2020an energia berriztagarrien % 20ko ekoizpena handitzeko helburua beteko dutela segurtatzeko eta BEGak murrizteko (78).

Batzordeak proposatutako Zuzentarauaren testuak EBrako helburu lotesle bat zehazten du iturri berriztagarrietatik datorren energiaren kuotari buruz 2030eko guztizko energia gordinaren kontsumoan (1. art.). Zehazten du horrelako energia iturritzat hartuko direla berriztagarri ez fosilak, alegia, haize energia, eguzki energia (eguzki energia termikoa eta eguzki energia fotovoltaikoa) eta energia geotermikoa, giro beroa, marea energia, uhin energia eta beste itsas energia batzuk, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegiko gasak eta biogasa (2. art.). Eta 2030erako energia eta klima esparruan ezarritakoari lotuz, EBrako helburu orokor lotesle gisa zehazten denez, estatu kideek elkarrekin zainduko dute EBko guztizko energia kontsumo gordinen iturri berriztagarrietatik ateratako energia kuota % 27koa gutxienez izatea (3. art.).

(74) FUNDACIÓN ENERGÍAS RENOVABLES (editore), *Directiva Europea sobre Energías Renovables. Desafíos y oportunidades*, FER, Madril, 2017, 5 orr.

(75) EUROPAR BATZORDEA, 2017ko otsailaren 1eko dokumentua, *Informe de situación en materia de energías renovables*, COM (2017) 57 final.

(76) EUROPAR BATZORDEA, *Third Report...*, *op. cit.*, 3 orr.

(77) EUROPAR BATZORDEA, 2017ko otsailaren 23ko dokumentua, *Propuesta de Directiva relativa al fomento del uso de energía procedente de fuentes renovables (refundición)*, COM (2016) 767 final.

(78) RUIZ CAMPILLO, Xira, «Transformación de la UE en su lucha contra el cambio climático», *Economía Exterior*, 81 zenbakia, 2017, 87 orr.

Kuota hori % 27an mantentzea izan zen Europako Parlamentutik adierazitako kritika handienetako bat (79), estatu kideetako bakoitzari bete-behar zehatzik ez jartzearekin batera. Horrek luzatu egin du legegintzako prozedura arruntaren bidez testua izapidetzea, areago Europako Parlamentuak onartutako zuzenketa ondoren, exijentzia hori % 35eraino igotzen baitzuen, eta estatu bakoitzerako helburuak ezartzeko beharra ezartzen (80). Bukatzeko, 2018ko ekainean, Europako Parlamentua, Batzordea eta estatu kideetako gobernuak akordio batera heldu ziren, Kontseiluak berretsitakoa, Zuzentarauaren helburu nagusizat 2030erako iturri berriztagarrietatik ateratako energiaren % 32ko kuota lortzea ezarriz (81).

Aldi berean, Erreglamenduren inguruan akordio bat lortzen zen Energia Batasunaren gobernantzari buruz; bertan, klima eta energia gaietako estatuaren planak aurreikusten dira energiaren alderdi bakoitzerako. Era horretan, estatu kideak behartuta leudeke 2019ko abenduaren 31rako eta, data horretatik, hamar urtean behin, estrategia bat diseinatzera, energia eta klimari buruzko estatu bakoitzerako helburuak, ekarpenak, politikak eta neurriak bilduko lituzkeena. Gainera, egutegi bat ezarri zen 2030erako energia berriztagarriak % 32 izatea lortzeko; bide horretan, EBk helburuaren % 18a lortua behar du 2022rako, % 43a 2025erako, eta % 65a 2027rako (82).

Gainera, energia efizientziaren arloan eta Europako Parlamentuaren ekimenez, handitu egingo da 2030erako energia efizientzian hobetu beharreko ehunekoa. Kasu honetan, energia efizientziaren Zuzentaraua izapidetzean, Europako Parlamentuak energia efizientzia 2030erako % 34ra igotzea proposatu zuen eta, horren aurrean, Kontseiluak onartu zuen aintzat joko zuela % 30etik gorako kuota bat (83). Erakundeen arteko negoziazio gehiagoren ondoren, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak gutxienezko % 32,5eko ehunekoa adostu zuten (84).

(79) 48. oin-oharrean aipatu dugun bezala, 2030erako energia eta klima esparruaren aurrean, Europako Parlamentuak gutxienez % 30eko kuota erreklamatu zuen, eta hori bera errepikatu zuen energia berriztagarrien egoerari buruzko Batzordearen txostena ikusita. Europako Parlamentua, Energia berriztagarrien egoeraren txostenari buruzko erabakia, 2016ko ekainaren 23koa (2016/2041 (INI)). *Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* C 91, 2018/3/9, 21 orr.

(80) Europako Parlamentuak 2018ko urtarrilaren 17an onartutako zuzenketa, iturri berriztagarrietatik ateratako energiaren erabilera sustatzeko Zuzentarau proposamenari buruz (bertsio bategina). (COM (2016) 0767 – C8-0500/2016 – 2016/0382 (COD)), 324 zuzenketa.

(81) EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, 2018ko ekainaren 27ko prensa-adierazpena, *Energías renovables: el Consejo confirma el acuerdo alcanzado con el Parlamento Europeo*, 417/18.

(82) EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, 2018ko ekainaren 29ko prensa-adierazpena, *Gobernanza de la Unión de la Energía: el Consejo confirma el acuerdo alcanzado con el Parlamento Europeo*, 424/18.

(83) EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, 9287/18 dokumentua, *Proposal for a Directive of the European Parliament and of the Council amending 2012/27/EU on energy efficiency*. Brusela, 2018/6/4.

(84) Europar Parlamentua, Provisional Agreement Resulting from Interinstitutional Negotiations – Proposal for a directive of the European Parliament and of the Council amending 2012/27/EU on energy efficiency (COM(2016)0761 – C8-0498/2016 – 2016/0376(COD)), 2018/7/17.

2018ko abenduan, legegintzako prozedura arrunta amaitu zen, hiru lege egintza onartuz: (UE)2018/1998 Erregelamendua, Energia Batasunaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren gobernantzari buruzkoa; (UE)2018-/2001 Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik ateratako energia sustatzekoa; eta (UE)2018/2002 Zuzentaraua, energia efizientziari buruzkoa (85). Hiru egintzek eutsi egiten diote Batzordeak proposatutako araudiari, Europako Parlamentuaren proposamenen bidetik Kontseiluak amaieran erabakitako aldaketak gehituz.

Era horretan, 2018/1998 Erregelamenduak gobernantza mekanismo bat ezartzen du Energia Batasuneko helburuak betetzeko estrategiak eta neurriak, baita Pariseko Hitzarmenetik eta 2030erako energia eta klima esparrutik sortutako BEG isurien gaitan EBk hartutako konpromisoak ere, aplikatzeko. Arauak energia eta klimaren estatuetako planek izan behar dituzten ezaugarriak zehazten ditu. Estatu kideek hamar urtean behin onartuko dituzte plan horiek, eta lehenengo aldiak 2021etik 2030ra iraungo du. Ikusten denez, Estatu kideek euren konbinaketa eta lehentasun energetikoak aukeratzeko malgutasuna behar badute ere, EBko arauketak zehazten du malgutasun horrek bateragarri izan behar duela merkatuaren integrazio handiagoarekin, kompetentzia haundiagorekin, klima eta energia helburuen lorpenarekin eta ekonomia jasangarrirako etengabeko trantsizioarekin (86).

Bestetik, 2018/2002 Zuzentaruak ordu arte indarrean zegoena (2012/27/UE Zuzentaraua) aldatu eta berrikusten du. Jadanik, lehenengo arau horrek adierazten zuen energia efizientzia tresna baliotsuena dela arlo honetan garrantzitsuenak diren erronkei aurre egiteko, hau da, energi menpekotasuna, energi baliabideen eskasia eta aldaketa klimatikoa (87). Zuzentaru berriak horniduraren efizientzia eta kontsumoa tratatzen duten energiaren merkatuko oztopoak kentzeko arauak ezartzen ditu, 2020rako energia efizientzia % 20 igotzeko, eta 2030erako % 32,5 gutxienez, eta energia efizientziarako hobekuntzak aurreikusten ditu urte horien ondoren. 2030 arte, estatu kideek urteko batez besteko energia kontsumoa % 4,4 murrizteko neurriak aplikatu behar dituzte. Energiaren erabilera efizienteak etxeetako eta enpresetako kontsumoa gutxitzeko modua emango du eta, beraz, partikularren energia fakturak merkeagoak izatea, baita EBk hirugarren herrialdeekiko energia mendekotasun txikiagoa izatea ere.

(85) 2018ko abenduaren 11n Europar Parlamentuak eta Kontseiluak hiru arauak onartu zituzten (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 328, 2018/12/28).

(86) GARCÍA GARCÍA, Sara, «Legislación al día. Reglamento (UE) 2018/1999 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 sobre la gobernanza de la Unión de la Energía y de la Acción por el Clima», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 88 zenbakia, 2019, 55 orr.

(87) GARCÍA GARCÍA, Sara, «Legislación al día. Directiva (UE) 2018/2002 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 por la que se modifica la Directiva 2012/27/UE relativa a la eficiencia energética», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 88 zenbakia, 2019, 57 orr.



2018/2001 Zuzentarauak komentario berezi bat merezi du. *Energia berriagarriari buruzko* Zuzentaria ere deitzen zaio, gai horretako laugarrena baita, eta hainbat aldiz aldatutako 2009/28 Zuzentariaren ordeztatzailea. Hain zuzen, hainbeste aldaketaren ondoren segurtasun juridikoa babestearren, zuzentari hori egitearen aldeko hautua egin da, berritasun guztiak bateratu eta artikulatzen dituen. Gaurdaino ondutako energia berriagarriari buruzko Zuzentari luze eta asmo handikoena da (88). Aldaketa handiena 2030eko EBren guztizko energia gordinaren kontsumoan iturri berriagarrietatik ateratako energia kuota igoera izan da, % 20tik % 32ra pasa baita. Gainera, 2023an gorantz berrikeratu daitekeen helburua da, baldin eta energia berriagarria ekoizteko kostuak gutxitzen badira eta EBk deskarbonizaziorako nazioarteko hitzarmenak lotzen baditu, baita EBk energia nabarmen gutxiago kontsumitzen badu ere. Bestetik, estatu kideek helburu horretarako heltzeko ekarpen bat finkatu behar dute, energia eta klimarako estatu bakoitzaren plan integratuetan kokatuta (2018/1998 Erreklamenduan ezarritako gobernantza prozesuaren arabera), nahiz eta aurreko Zuzentariaren bidez lortutako emaitzak segurtatzeko, ezarri ere egiten den estatuak 2020rako zehazten dituzten helburuak izango direla estatuak 2030erako beren ekarpen gisa gutxienez ezar dezaketena.

Zuzentariak biltzen dituen beste berritasun batzuk ere aipatzekoak dira. Lehendabizi, elektrizitate berriagarriarako laguntza mekanismo berriak, merkatu elektrikoan distorsiorik ez sortzeko baldintzapean. Bigarrenik, jatorriari buruzko bermeak, azken bezeroei energia hornitzaileek eskaintzen duten energia iturri berriagarriaren ehunekoia ziurtatzeko. Bukatzeko, tasa neurrigabeei aurre egin beharrik gabe nork bere energia berriagarria kontsumitzea babesten duen oinarritzko araudi bat (89).

Adierazitako hiru arauetaz gain, (UE)2018/844 Zuzentaria, eraikinen energia efizientziari buruzkoa, lehenago onartutakoa, sartzen da *Energia eta klimari buruzko lege sortan* ere (90). Gogoan izanik eraikinek energiaren % 40 kontsumitzen dutela eta EBren CO<sub>2</sub> isuriaren % 36 osatzen dutela, Zuzentariak eraikuntzaren arloaren gainean eragin nahi du, energia efizientzia handitzeko. Helburu zehatzen artean, eraikin adimentsuen sorrera nabarmendu behar da, energia pobrezia gutxitzen eta, zehazki, EBn 2050erako isuri gutxi edo batera isuririk ez duten higiezin multzoa

---

(88) GARCÍA GARCÍA, Sara, «Legislación al día. Directiva (UE)2018/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 relativa al fomento del uso de energía procedente de fuentes renovables», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 87 zenbakia, 2019, 141 orr.

(89) Berritasun horiei buruz ikus PRESICCE, Laura, «El periplo de la regulación del autoconsumo energético y generación distribuida en España: la transición de camino hacia la sostenibilidad», *Herri Ardularitza Euskal Aldizkaria*, 113 zenbakia, 2019, 206-210 orr. (4. kapitulua: «La Unión Europea y la transición energética justa»)

(90) 2018ko maiatzaren 30ko Zuzentaria, 2010/31/UE eta 2012/27/UE Zuzentariak aldatzen dituen (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala L 156, 2018/7/19).

sortzen laguntzeko, eraikinen deskarbonizaziorako estatuen bide orriak aplikatzearen bitartez.

Bukatzeko, testu honen idazketa bukatzen den bitartean *Energia eta klimaren lege sortan* sartzen diren beste lau arau onartu dira: (UE)2019/943 Erreklamendua, elektrizitate barne merkatuari buruzkoa; (UE)2019/944 Zuzentaraua, elektrizitate barne merkatuarentzako arau komunei buruzkoa; (UE)2019/941 Erreklamendua, elektrizitate arloko arriskueterako prestatze-koa; eta (UE)2019/942 Erreklamendua, EBko Energia Arautzaileen Lankidetzaren Agentzia sortzen dueneko (91). Neurri horien bidez, Europako elektrizitate merkatuak aurre egin ahal izango die energia garbira trantsizioa egitean agertutako erronkei.

2019/943 Erreklamenduak EBko elektrizitatearen barne merkatuaren funtzionamendu egokirako funtsezko oinarriak ezartzen ditu eta 2019-/944 Zuzentarauak horiek garatzen ditu, arau komun bitartez eta espezifikagoak diren beste bi Erreklamenduen laguntzaz. Era horretan, lau arauk ondorengoak bultzatuko dituzte: EBko energia merkatu osotik elektrizitatea aske zirkulatzea, energia berriztagarriak elektrizitate sarean sartzeko malgutasun handiagoa, EBren energia sistema deskarbonizatzea, zentral elektrikoentzako isuri muga berri bat, eta energia krisietan eta hornidura etenetan babes handiagoa. Arau berriek kontsumitzaileen babesa sendotzen dute, hornitzaileengandik kontratu eta fakturretan jasotzen duten informazioa hobetzeko edo hornitzaile aldaketa errazteko neurriak ezarriz.

Batzordeak, 2030 arteko aldirako neurri sortetako legegintzako egintzak ezarritakoan eta 2018rako aurreikusitako isuri globalen datu kezagarriak kontuan hartuz (92), baita tenperatura 1,5 °C ez igotzera heltzeko IPCCren gomendioak ere (93), bere proposamena egin zuen energia garbira trantsizioa egiteko eta BEG isuriak Europan 2050. urterako desagertu daitezela (94). Ikuspen horren bidez, Europar Batasuna aurreikusitako klima eta energiari buruzko helburuak baino urrutiago joan ahal izango da, 2050erako erre-

(91) 2019ko ekainaren 5ean Europar Parlamentuak eta Kontseiluak lau arauak onartu zituzten (*Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala* L 158, 2019/06/14).

(92) 2014 eta 2016 artean, munduko BEG isuriak geldotu egin ziren, munduko BPGa hazten zen arren; ordea, 2017an, % 1,6 hazi ziren berriz, eta 2018rako aurreikuspena % 2,7 igoera da. BRUHWILER, L., MICHALAK, A. M., BIRDSEY, R., FISHER, J. B., HOUGHTON, R. A., HUNTZINGER, D. N., eta MILLER, J. B., «Overview of the global carbon cycle», *Second State of the Carbon Cycle Report (SOCCR2): A Sustained Assessment Report*, CAVALLARO, N., SHRESTHA, G., BIRDSEY, R., MAYES, M. A., NAJJAR, R. G., REED, S. C., ROMERO-LANKAO, P. eta ZHU, Z. (editore), U.S. Global Change Research Program, Washington, 2018, 43 orr.

(93) IPCC-Aldaketa Klimatikoari buruzko Gobernu arteko Aditu-taldea, *Global Warming of 1.5 °C*, PNUMA, 2018 (<https://www.ipcc.ch/>).

(94) EUROPAR BATZORDEA, 2018ko azaroaren 28ko komunikazioa, *Un planeta limpio para todos. La visión estratégica europea a largo plazo de una economía, próspera, moderna, competitiva y climáticamente neutra*, COM (2018) 773 final.

gai fosilak alboratzeko modua ematen duten politikak garatuz. Batzordeak egiaztatu du 2030erako lege sortak 2030. urterako BEG isuriak % 45 murrizteko balioko duela (helburu gisa aurreikusitako % 40a baino gehiago), eta 2050erako % 60. Dena den, Batzordeak ondorioztatu zuen EBk neurriak har ditzakeela isuriak (1990en aldean) % 80tik 100era murrizteko; bezaz, 2050erako, zero isuriko egoerara hel gaitzke, eta, era horretan, klimari begira neutroa den ekonomia batera heldu.

#### IV. Ondorioak

Ingurumen eta energiari buruzko Europako oinarrizko araudia antolamendu juridiko komun bat izatearen bertuteen eredu bat da, era horretan estatuko mugez gaindiko arazoei aurre egin ahal izango baitzaie, adibidez, kutsadurari. Hura aplikatuz, helburu komun bat ere lor daiteke, adibidez, garapen jasangarria; are, sustatu ere egiten da, oro har, Europako eremu komun bat sendotzea.

Barne merkatuaren ezaugarriek nahitaezko egin zuten Europako Erki-degoetan oinarrizko arau batzuk ezartzea, estatu bakoitzeko ingurumenari buruzko araudiek lehia askearen kontrako egoerarik sortu ez zezaten. Hasierako tratatuetan araudirik ez zegoenez, tratatu eraldatzaileak joan dira moldatzen egungo Europako ingurumenari buruzko politika. Aurrerapen adierazgarrienen artean, ekonomiaren hazkunde eta ingurumenaren babesaren arteko uztarketa aipatu behar da, garapen jasangarria EBren oinarrizko helburu gisa finkatuz, eta helburu horren inguruko gainerako europar politikak eta ekintzak modu integratuan definitu eta gauzatzen dituelako.

Deigarria da ikustea nola Europako integrazio prozesua energia arloen batasuna bultzatetik sortu bazen ere, energiaren arloan Europak ez zuela bere politika bat garatu. Dena den, testuan zehar egiaztatu ahal izan dugunez, azken urteotan Europaren energia politika bultzatuz, sendotzen ari da ingurumena eraginkortasunez babesteko eta arlo horretako apustu handienari, klima aldaketari, aurre egiteko modua. Europaren politika hori ez zen sortu bere horretan eraketako tratatuetan, eta ez zen araupetu European gero egindako erreformatan, batez ere estatu kideek gaia estrategikotzat eta interes nazionalekotzat hartzen zutelako. Horregatik, EB 2000. urtetik aurrera bakarrik hasi da energia politika modu adierazgarrian bultzatzen, eta bultzada hori, hain zuzen, hartan zalantzarik gabe bildutako ingurumen arloko gaiengatik gertatu zen, eta bereziki, jasangarritasuna lortzeko elementu garrantzitsutzat hartzen joan delako.

Lisboako Tratatuak eta Europa 2020 Estrategiak energia politika bihurtu zuten ingurumenaren babeserako eta klima aldaketaren kontrako borrokarako tresna erabakigarria. Era horretan, EBk energia eta inguru-

men gaietako politika integratua darabil (tartean sartuz klimaren aldeko ekintza), energia berriztagarrien sustapenak eta energia efizientziaren aldeko bultzadak agerian uzten duten bezala. Are, arlo horien arteko harremana eta mendekotasuna araudiaren beharrezko sinbiosi bat ekarri du. Bide horretatik, Energia Batasunaren estrategiak, tartean duela 2030erako klima eta energia esparrua, EBk hurrengo urteetan jarraitu nahi duen bidea zehazten du, alegia, garapen jasangarria lortzea errazteko energia trantsizioa bultzatzen du. Trantsizio hori *Energia garbia lege* sortaren bidez garatzen da, energia berriztagarriak eta energia efizientzia bultzatzeko oraindik orain hartutako legegintzako egintza garrantzitsuen bidez, baita araudi prozesua amaitzeko bidean diren beste egintza batzuen bidez ere. Alde horretatik, 40/27/27 helburua 40/32/32,5 helburu bihurtzeko edukitako bilakaerak garrantzi berezia du, eta hura 2030ean lor daiteke, EBk dituen ahalmenak ikusita. Europako Kontseiluak bere egin zuen Batzordearen proposamena, alegia, 2050ean zero isurietara heltzea eta, 2030-2050 aldian, hori lortzeko aplikatzekoa den araudi neurrien sorta bat ezartzea; hartara, EB toki ezin hobean jarriko da garapen jasangarriaren helburura heltzeko.

## Bibliografia

- ALENZA GARCÍA, José Francisco eta SARASIBAR IRIARTE, Miren, *Cambio climático y energías renovables*, Thomson-Civitas, Zizur Txikia (Nafarroa), 2007.
- ARANZADI, Claudio, «Energía y Geoestrategia: Introducción», *Cuadernos de Estrategia*, 166 zenbakia, 2014, 19-44 orr.
- , «UE 2030: objetivo clima y energía», *Política Exterior*, 29-163 zenbakia, 2015, 46-53 orr.
- BEDIA BUENO, Gemma, «El Derecho de la Energía, las Políticas Europeas y la Transición Energética en la Unión Europea», *Cuadernos Cantabria Europa*, 16 zenbakia, 2017, 38-62 orr.
- BRUHWILER, L., MICHALAK, A. M., BIRDSEY, R., FISHER, J. B., HOUGHTON, R. A., HUNTZINGER, D. N., eta MILLER, J. B., «Overview of the global carbon cycle», *Second State of the Carbon Cycle Report (SOCCR2): A Sustained Assessment Report*, CAVALLARO, N., SHRESTHA, G., BIRDSEY, R., MAYES, M. A., NAJJAR, R. G., REED, S. C., ROMERO-LANKAO, P. eta ZHU, Z. (editore), U.S. Global Change Research Program, Washington, 2018, 42-70 orr.
- DE CARLOS IZQUIERDO, Javier, «La estrategia de seguridad energética de la Unión Europea y España», *Boletín I.E.E.E.*, 1 zenbakia, 2016, 5557-574 orr.
- ESCRIBANO FRANCÉS, Gonzalo eta LÁZARO TOUZA, Lara, «Energía y clima en 2017: volatilidad contenida, implementación climática e incertidumbre política», *Análisis del Real Instituto Elcano (ARI)*, 31 zenbakia, 2017.

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, 2018ko ekainaren 27ko prensa-adierazpena, *Energías renovables: el Consejo confirma el acuerdo alcanzado con el Parlamento Europeo*, 417/18.

—, 2018ko ekainaren 29ko prensa-adierazpena, *Gobernanza de la Unión de la Energía: el Consejo confirma el acuerdo alcanzado con el Parlamento Europeo*, 424/18.

—, 9287/18 dokumentua, *Proposal for a Directive of the European Parliament and of the Council amending 2012/27/EU on energy efficiency*. Bruselas, 2018.

EUROPAR BATZORDEA, 1968ko abenduaren 18ko komunikazioa, *First guidelines for a Community energy policy*, COM (68) 1040.

—, 1974ko ekainaren 26ko komunikazioa, *Towards a new energy policy strategy for the European Community*, COM (74) 550 final/2.

—, 1981eko urriaren 2ko komunikazioa, *The development of an energy strategy for the Community*, COM (81) 540.

—, 1988ko maiatzaren 3ko komunikazioa, *The main findings of the Commission's Review of Member State's energy policies*, COM (88) 174 final.

—, 1990eko otsailaren 8ko komunikazioa, *Energy and the environment*, COM (89) 369 final.

—, *For a European Union Energy Policy – Green Paper*, COM (94) 659 final/2, 1994.

—, *Energy for the Future: Renewable Sources of Energy – Green Paper*, COM (96) 576 final, 1996.

—, 1997ko maiatzaren 14ko komunikazioa, *The Energy Dimension of Climate Change*, COM (97) 196 final.

—, *Libro Verde: Estrategia europea para una energía sostenible, competitiva y segura*, COM (2006) 105 final, 2006.

—, *Un medio ambiente de calidad. La contribución de la UE*, OPOCE, Bruselas-Luxemburgo, 2006.

—, 2007ko urtarrilaren 10eko komunikazioa, «*Una política energética para Europa*», COM (2007) 1 final.

—, 2007ko urtarrilaren 10eko komunikazioa, *Limitar el calentamiento mundial a 2 °C – Medidas necesarias hasta 2020 y después*, COM (2007) 2 final.

—, 2010eko martxoak 3ko komunikazioa, *Europa 2020. Una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador*, COM (2010) 2020 final.

—, 2010eko azaroaren 10eko komunikazioa, *Energía 2020: Estrategia para una energía competitiva, sostenible y segura*, COM (2010) 639 final.

—, 2011ko abenduaren 15eko komunikazioa, *Hoja de Ruta de la Energía para 2050*, COM (2011) 885 final.

—, 2012ko urriaren 3ko komunikazioa, *Acta del Mercado Único II – Juntos por un nuevo crecimiento*, COM (2012) 573 final.

—, 2014ko urtarrilaren 24ko komunikazioa, *Un marco estratégico en materia de clima y energía para el período 2020-2030*, COM (2014) 15 final.

—, *Comprender las políticas de la Unión Europea: Energía*, Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa, Luxemburgo, 2014.

- , 2014ko maiatzaren 28ko komunikazioa, *Estrategia Europea de la Seguridad Energética*, COM (2014) 330 final.
  - , 2014ko uztailaren 23ko komunikazioa, *La eficiencia energética y su contribución a la seguridad de la energía y al marco 2030 para las políticas en materia de clima y energía*, COM (2014) 520 final.
  - , 2015eko otsailaren 25eko komunikazioa, *Estrategia Marco para una Unión de la Energía resiliente con una política climática prospectiva*, COM(2015) 80 final.
  - , *State of the Energy Union 2015. Commission Staff Working Document on the European Energy Security Strategy*, SWD (2015) 404 final, 2015.
  - , 2015eko azaroaren 18ko komunikazioa, *Estado de la Unión de la Energía 2015*, COM (2015) 572 final.
  - , 2016ko azaroaren 30eko komunikazioa, *Energía limpia para todos los europeos*, COM (2016) 860 final.
  - , 2017ko otsailaren 1eko komunikazioa, *Second Report on the State of the Energy Union*, COM (2017) 53 final.
  - , 2017ko otsailaren 1eko dokumentua, *Informe de situación en materia de energías renovables*, COM (2017) 57 final.
  - , 2017ko otsailaren 23ko dokumentua, *Propuesta de Directiva relativa al fomento del uso de energía procedente de fuentes renovables (refundición)*, COM (2016) 767 final.
  - , 2017ko azaroaren 23ko komunikazioa, *Third Report on the State of the Energy Union*, COM (2017) 688 final.
  - , 2018ko azaroaren 28ko komunikazioa, *Un planeta limpio para todos. La visión estratégica europea a largo plazo de una economía, próspera, moderna, competitiva y climáticamente neutra*, COM (2018) 773 final.
- FABRA PORTELA, Natalia, «La Unión Energética: instrumento para la transición energética en Europa», *Información Comercial Española ICE*, 902 zenbakia, 2018, 65-80 orr.
- FERNÁNDEZ DE GATTA SÁNCHEZ, Dionisio, «Unión Europea: inicio del debate sobre la transición energética», LÓPEZ RAMÓN, Fernando (koordinatzailea), *Observatorio de Políticas Ambientales 2017*, CIEMAT, Madril, 2017, 45-82 orr.
- FUNDACIÓN ENERGÍAS RENOVABLES (editore), *Directiva Europea sobre Energías Renovables. Desafíos y oportunidades*, FER, Madril, 2017.
- GARCÍA GARCÍA, Sara, «Legislación al día. Directiva (UE)2018/2001 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 relativa al fomento del uso de energía procedente de fuentes renovables», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 87 zenbakia, 2019, 141-144 orr.
- , «Legislación al día. Reglamento (UE) 2018/1999 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 sobre la gobernanza de la Unión de la Energía y de la Acción por el Clima», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 88 zenbakia, 2019, 54-56 orr.
  - , «Legislación al día. Directiva (UE) 2018/2002 del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre de 2018 por la que se modifica la Directiva

- 2012/27/UE relativa a la eficiencia energética», *Actualidad Jurídica Ambiental*, 88 zenbakia, 2019, 57-58 orr.
- GUSEV, Alexander S., «Climate Change Issues in a Transatlantic Context», *L'Europe en formation*, 360 zenbakia, 2011, 79-91 orr.
- GUTIÉRREZ ROA, Tomás, «La Unión de la Energía y su impacto en las relaciones exteriores comunitarias», *Boletín I.E.E.E.*, 10 zenbakia, 2018, 916-929 orr.
- HERRERO DE CASTRO, Rubén David, «La seguridad energética y la estrategia global de seguridad de la Unión Europea», *Revista UNISCI*, 42 zenbakia, 2016, 83-98 orr.
- IPCC-Aldaketa Klimatikoari buruzko Gobernu arteko Aditu-taldea, *Global Warming of 1.5 °C*, PNUMA, 2018
- KULOVESI, Kati, MORGERA, Elisa eta MUÑOZ, Miquel, «Environmental integration and multi-faceted International dimensions of EU law: unpacking the EU's 2009 climate and energy package», *Common Market Law Review*, 48-3 zenbakia, 2011, 829-891 orr.
- LÓPEZ SAKO, Masao Javier, «La política energética sostenible de la Unión Europea (1)», *Noticias de la Unión Europea*, 322 zenbakia, 2011, 81-92 orr.
- LÓPEZ-NICOLÁS BAZA, Antonio, «El liderazgo de la Unión Europea en Energías Renovables: el paquete de Energía Limpia de la Comisión Europea», *Cuadernos de Energía*, 55 zenbakia, 2018, 22-27 orr.
- MODAFFERI, Caterina, «La política medioambiental europea. Estudio sobre el desarrollo de la protección ambiental y papel decisivo de la Unión Europea», *Cuadernos Cantabria Europa*, 15 zenbakia, 2016, 49-68 orr.
- MORÁN BLANCO, Sagrario, *Seguridad Energética y Medio Ambiente. Dos caras de una misma moneda. Especial referencia a la Unión Europea*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur (Nafarroa), 2015.
- MORENO REGAÑA, Ana, «Hegemonía y capital transnacional en la Unión Europea. El marco para el clima y la energía», *Relaciones Internacionales*, 31 zenbakia, 2016, 95-110 orr.
- MOUSSIS, Nicolas, *EU Environment & Energy Policies: Two Interwoven Legislative Areas*, European Study Service, Rixensart (Belgika), 2009.
- OETTINGER, Günther, «El futuro de la energía en la Unión Europea», *Cuadernos de Energía*, 41 zenbakia, 2013, 15-19 orr.
- OLABE, Antxon, GONZÁLEZ-EGUINO, Mikel eta RIBERA, Teresa, «Hacia un nuevo orden mundial de la energía», *Documento de Trabajo del Real Instituto Elcano*, 12 zenbakia, 2017.
- PÉREZ DE LAS HERAS, Beatriz, «Las políticas de seguridad energética en la Unión Europea y los Estados Unidos: desafíos globales y compromisos comunes en la transición hacia un modelo energético más sostenible», *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 47 zenbakia, 2014, 13-47 orr.
- PRESICCE, Laura, «El periplo de la regulación del autoconsumo energético y generación distribuida en España: la transición de camino hacia la sostenibilidad», *Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria*, 113 zenbakia, 2019, 181-221 orr.

- RIBERA RODRÍGUEZ, Teresa, SPENCER, Thomas, SARTOR, Oliver eta MATHIEU, Mathilde, «La Unión Europea y la revolución americana de los no convencionales», *Economía Exterior*, 68 zenbakia, 2014, 27-38 orr.
- RISTORI, Dominique, «60 ans de politique énergétique», *Revue du droit de l'Union européenne*, 1 zenbakia, 2019, 17-38 orr.
- RUIZ CAMPILLO, Xira, «Transformación de la UE en su lucha contra el cambio climático», *Economía Exterior*, 81 zenbakia, 2017, 83-88 orr.
- RUIZ GONZÁLEZ, Francisco José, «El reto de la seguridad energética para la Unión Europea», *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*, 6 zenbakia, 2015, 106-120 orr.
- SODUPE, Kepa eta BENITO, Eduardo, «Los problemas energéticos en la Unión Europea a la luz del tratado sobre la Carta de la Energía», *Anuario español de derecho internacional*, 16 zenbakia, 2000, 421-448 orr.
- TORRE-SCHAUB, Marthe, «L'apport du principe de développement durable au droit communautaire: gouvernance et citoyenneté écologique», *Revue du Marché Commun et de l'Union Européenne*, 555 zenbakia, 2012, 84-92 orr.
- VALDÉS, Javier, «Evolución y consistencia en la política de seguridad energética de la UE: los Proyectos de Interés Común», *Papeles de Europa*, 29-2 zenbakia, 2016, 69-93 orr.